

**GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)****2013-07-03ko BILKURAREN AKTA**

Gasteizen egina (Seminarioa)
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 67

DEIALDIA EGITEN DUENA:

Presidentea: **Juan María Aburto Rique jauna.**- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

BERTARATZEA**A) KIDE BAKARREKO ORGANOAK:**

- **PRESIDENTEA.** **Juan María Aburto Rique jauna.**- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.
- **PRESIDENTEORDEA.** **Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna.**- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea.
- **IDAZKARIA.** **Ángel M^a. Manero González jauna.**- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako Gizarte Gaien Arloko arduraduna.

B) BATZORDEKIDEAK:

Lide Amilibia Bergaretxe andrea.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

José Luis Madrazo Juanes jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria.

Xabier Iñigo Ochandiano Martínez jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria.

María Ubarrechena Cid andrea.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Ekonomiaren zuzendaria.

Ignacio Basañez Alfonso jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitza zuzendaria.

José Antonio De la Rica Giménez jauna.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko EAEko koordinatzaile soziosanitarioa..

M^a Begoña Garamendi Ibarra andrea.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.

Mónica Hernando Porres andrea.- Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria.

Cristina Madinabeitia Olariaga andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismo Zuzendaritzako teknikaria.

Ana M^a Reka Esparza andrea.- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuaren Kabineteko zuzendaria.

José M^a Barrutia Legarreta jauna.- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia eta Plangintza zuzendaria.

Leyre Sologuren Etxenagusia andrea.- Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko teknikaria.

Paloma Aranceta Arilla andrea.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Sergio Murillo Corzo jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko zuzendari nagusia.

María del Río Pereda andrea.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako zuzendari nagusia.

Dorleta Goiburu Muruaga andrea.- EUDELeke (Euskadiko Udalen Elkarte) teknikaria.

M^a José Blanco Gaveiro andrea.- EUDEL (Portugaleteko Udaleko zinegotzia).

Julene Gabiola Amallobieta andrea.- ELA SINDIKATUA.

Emilia Málaga Pérez andrea.- UGT Euskadi.

Felisa Piedra Gao andrea.- CCOO Euskadi.

Gotzon Villaño Murga jauna.- EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak.

M^a Arantzazu González Barquín andrea.- Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa.

Karmele Acedo Gil andrea (Servicios Sociales Integrados S. Coop).- Euskadiko Lan Elkarteen Kooperatiben Konfederazioaren ordezkaria.

Amaia López Iriondo andrea.- CONFEBASK (Euskal Enpresarien Konfederakuntza).

Gonzalo Salcedo Bilbao jauna.- CONFEBASK (Euskal Enpresarien Konfederakuntza).

Manu Moreno Gil jauna (EAPN Euskadi).- Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorreko ordezkaria.

Miguel Angel Ruiz Díez jauna (Hiesaren aurkako Arabako Batzordea).- Droga-mendetasunen esparruko erakundeen ordezkaria.

Natalia Díez-Caballero Alonso andrea (HIRUKIDE - Euskadiko Kide Ugariako Familien Elkarteen Federazioa).- Familia Batzorde Iraunkor Sektorialaren ordezkaria.

Angel Sainz Palomar jauna (Agintzari S.Coop).- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Francy Fonseca Linares andrea (Harresiak Apurtuz).- Etorkinen Laguntzarako GKEen Koordinakundearen ordezkaria.

Consuelo Ordejón Caballero andrea (Gizarterako Elkartea).- EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordearen ordezkaria.

Iñigo Iriarte Lejarraga jauna (FEVAS).- Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioaren ordezkaria.

M^a José Cano Mesías andrea (FEDEAFES).- Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarteen Federakuntzaren ordezkaria.

Aitor González Angulo jauna (ONCE Euskadi).- Zentzumen urritasunaren eremuan lan egiten duten EAEko erakundeen ordezkaria.

Amparo Villar Sáenz andrea (Aldarte Elkartea).- Sexu-orientazioagatiko bazterketaren aurka EAEN lanean diharduten gay, lesbiana eta transexualen elkarteen ordezkaria.

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna (EUSKO FEDERPEN).- Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarreetako Lurralde Federazioaren ordezkaria.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK

Miren Dorronsoro Iraeta andrea.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria.

Imanol Agote Alberro jauna.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen zuzendaria.

BERTARATU EZ DIREN KIDEAK

Batzordekide bat Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea).

Bi batzordekide enpresarien erakundeen (CONFEBASK) ordezkari gisa.

Bi batzordekide EUDElen (Euskadiko Udalen Elkarte) ordezkari gisa.

Batzordekide bat LAB sindikatuaren ordezkari gisa.

Batzordekide bat Euskadiko Gazteriaren kontseiluaren ordezkari gisa.

Batzordekide bat EAEko Urriku Fisikoen Konfederazio Koordinatzailearen (ELKARTEAN) ordezkari gisa.

KONTSEILUAK GONBIDATUTA BERTARATU DIREN BESTE BATZUK (KIDE EZ DIRENAK):

Luis Pérez Fernández jauna.- Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Psikologo Elkargoen ordezkaria.

Ibán Arrien Celaya jauna.- Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren ordezkaria.

Emilio Sola Ballojera jauna.- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren aholkularia.

Noemi Ostolaza Arcauz andrea.- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren aholkularia.

Mayte Díaz de Lezana andrea (AGLE).- Etorikinen Laguntzarako GKEen koordinatzailea.

.....

JORRATUTAKO PUNTUAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

Quorum nahikoa izanik, lehen deialdian Osoko Bilkura behar bezala eratu da, aurretik idazki bidez bidalitako deialdian adierazitako tokian eta egunean. Bilkura 2013ko uztailaren 3ko goizeko 11:35ean hasi da, presidenteak finkaturiko honako **Gai-zerrenda** honi jarraituz:

1. Aurreko bileraren akta onartzea (2012-10-15).
2. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako jardunei buruzko informazioa.
3. Adingabeen adopzioan Foru Aldundiek jarraitu behar duten prozedura arautzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
4. EAEko Gizarte Zerbitzuen Txostena (2012ko III. txostena) aurkeztea.
5. Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak 2013ko maiatzaren 2an emandako Aginduari buruzko informazioa ematea. Haren bidez, Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautu abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako deialdia egiten zen 2013. urterako.
6. Galde-eskeak.

.....

Hasteko, biltzarkide eta bertaraturako pertsona guztiei ongietorria eman die **Juan M^a Aburto** jaunak, eta eskertu ere eskertu die etapa berri bati hasiera ematen dion X. Legealdi honetako hasierako osoko bilkurara etorri izana.

1. puntua.- Aurreko bileraren akta onartzea (2012-10-15).

Presidenteak berak adierazi duenez, aurreko aktan ba omen da konpondu beharreko kontutxo bat; 5. orrialdeko 3. paragrafoan, izan ere, Gizarte Gaietako aurreko sailburuordearen hitzok jasotzen dira: "... Mapa garatzeko zenbait irizpide ere adostu dira, eta beraz, dagoeneko eskura dugu Erakunde arteko Organoan bertan onartu eta GZEK honetan aurkeztutako Mapa bat." Dena dela, hori ez da egia, eta Erakunde arteko Organoaren aurreko bilkura hartan egon eta oraingo honetara etorritako zenbait kidek ere halaxe berretsi dute: zenbait irizpide onartu zirela, bai, baina Mapa bera ez, ordea.

Osoko bilkurak goraxeago aipaturako zuzenketa hori egin eta Akta onartzea erabaki du.

2. puntua.- Gizarte Zerbitzuetako 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako jardunei buruzko informazioa.

- Azken hilabeteotan, gobernuak bere lanari ekin dionetik, egindako lanaren berri eman eta lan hori denekin konpartitu nahi izan du **Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko presidenteak**, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburutza bere gain hartu duelarik. Horretarako, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren azken bileran irakurritako dokumentu bat, *Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen garapenari buruzko txostena* izenekoa, irakurri du atzera ere. Dokumentu horretan, Gizarte Zerbitzuen alorrean eskumena duten Erakundeei Lege horren garapenari buruz gobernu eratu berriak egiten dien planteamendua, proposamenak eta egutegia biltzen dira.

Akta honen **1. ERANSKINEAN** jasotzen da dokumentu hori, eta harekin batera, Gizarte Zerbitzuen zuzendariak Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea oinarritzat duen arautegia zertan den zehatz-mehatz azaltzen du.

Horren guztiaren ostean, bertan daudenei hitz egiteko aukera eman zaie, eta hala, gizarte-erakundeek bi eskaera egin dizkiote presidenteari:

- 1.- Hirugarren Sektoreak arautegia garatzeko lanetan eta Zerbitzuaren Zorroari buruzko Dekretua egitekoetan parte hartzeko erronkari euts diezaiola.
- 2.- Dokumentazioa helaraz diezaiola (ez baitute dekretuaren zirriborroaren berri).

- **Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren** arabera, bere ibilbideak berak ez luke zalantzarako zirrikiturik utzi behar: *"Hirugarren Sektorearen aldeko apustua egiten dugu"*, eta horren erakusgarri da Legealdi honetan bertan Hirugarren Sektoreari buruzko Lege bat egiteko hartutako konpromisoa. *"Gizarte-zerbitzuak ezartzeko eta garatzeko, Hirugarren Sektoreko eragileekin elkarlanean aritu nahi dugu; izan ere, badakigu, jakin, ezinbesteko erreferentzia zaretela"*. Sailburuaren iritziz, baina, eragile horiek dagoeneko ari dira parte hartzen, eskuartean dugun hau ez baita Zerbitzuen Zorroari buruzko dekretu berri bat, hori dagoeneko bidali baitiegu Hirugarren Sektoreko eragileei: *"Hasiera Agindurik ez dugu aldatu, lehengo berarekin jarraitzen dugu, baina alegazioak ere egin dira, bai eta parte hartzeko epea ireki ere, eta beraz, orain, egindakoa sinplifikatzen eta zenbait aldaketa jasotzen ari gara"*.

Dioenez, berak ez luke inolako eragozpenik izango interesa dutenei dekretuaren zirriborro bat bidaltzeko, *"baina ez gaude hasierako fase horretan; aurreko gobernuak egiten hasi bai, baina zenbait lan zintzilik utzi zituen, horiekin jarraitzen dugu gaur egun"* (balorazio ekonomikoari buruz ari da, nagusiki). Ildo berari jarraituz, sailburuak esan duenez, Hirugarren Sektorearekiko

lan hori errazte aldera, azken hiruhilekoan emango omen die Ordainketa Partekatuari buruzko Dekretua (oraingoa ez baita unerik egokiena, opor-garaia dela-eta).

3. puntua.- Adingabeen adopzioan Foru Aldundiek jarraitu behar duten prozedura arautzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.

- **Juan M^a Aburto** jaunak gogorarazi du gaur aurkeztu den aldaketa hau zertan oinarritzen den: hiru foru aldundietako haur eta adingabeen zerbitzuetako teknikariek aho batez egindako eskaeran, hain zuzen.

- **Iñigo Pombo** jaunak adierazi duenez, bestalde, aldaketaren helburua hauxe da: adopzio-hartzaileen eta adingabeen adinaren artean alde jakin bat ezarri behar den ala ez ezartzea. Aldundien eta elkarten arteko adostasuna eta haien eguneroko jarduna oinarri zuen aurreko dekretu batean ezartzen zenez, adopzio-hartzaileen (bikotekide gazteenaren edo bikotekiderik gabeko adoptatzaileen) eta adingabearen artean, gehienez, 44 urteko aldea egon zitekeen. Neurri hori adostasun-maila handienez hartu zen, eta zenbait ikerketa teknikoki ere haren alde egiten zuten.

Aurreko etapan aldatu zen neurri hura, eta gaur egun indarrean den dekretua egin genuen; hala, erabaki genuen ez zela komeni adin jakin bat ezartzea, eta aldundietako zerbitzu teknikoei eman behar zitzaizela adopzio-hartzaileen eta adingabeen arteko adin-tartea (44 urte nahiz gehiago) erabakitzeko ardura. Dekretua onartu zen, baina, edonola ere, alegazioak ere izan ziren, hiru foru aldundiak eta familia adopzio-hartzaileen bi elkarteak (Bizkaiko eta Gipuzkoako Ume Alaia elkarteak) ez baitzeuden ados planteamendu horrekin.

Horrenbestez, planteamendu horrek haurren babesa bilatze aldera gure artean zegoen adostasuna islatzen ez zuela ulertzen denez, atzera ere aurreko irizpideari eutsi eta, hasierako egoerara itzultzeko, dekretua aldatzea erabaki da, eta beraz, bikotekide gazteenaren edo bikotekiderik gabeko eskatzaileen eta adingabearen adinaren artean 44 urteko aldea egon dadila ezarri da.

- **Kontseiluaren Presidentearen** ustez, ikuspuntu formal batetik, beharrezkoa da, arauak hala agintzen baitu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak txosten bat idaztea, kide guztien erabakia jasoa gera dadin. Horregatik, hain zuzen, bileran dauden kideei galdetu zaie ea denek onartzen duten aldaketa hori, edo ea baden inor (dela pertsona bat, dela kolektibo bateko ordezkari bat) aurka egon eta/edo abstentzioa emango duenik. Hauxe da bozketaren emaitza:

»» Aurkako botoak: Bat ere ez.

»» Abstentzioak: Bi (ELA sindikatua eta Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Elkargoa).

• Adingabeen adopzioan Foru Aldundiek jarraitu beharreko prozedura arautzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Dekretuari buruz Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak aurkeztutako txostena, beraz, onartutzat eman du **Kontseiluaren Presidenteak**. Txostena gehiengoz onartu da, bi abstentzio egon dira, eta aurkako botorik bat ere ez.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta familien ordezkari den HIRUKIDeko kideek biziki eskertu dute lehen ere aho batez onartutako ikuspuntua kontuan hartu izana. Haien iritziz, izan ere, Dekretua, erabaki bezala idatzita, askoz *“justuagoa eta objektiboagoa”* izateaz gain, hiru lurralde historikoetan irizpideak bateratzeko egokiagoa ere bada.

Aurreko puntua amaitutzat eman, eta gai-zerrendako 5. puntuari heltzeko proposamena egin du **Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko Presidenteak**, Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko Txostenaren aurkezpena bukaerarako utzita. Kontseiluak aho bate onartu du gai-zerrenda aldatzeko proposamena.

5. puntua.- Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak 2013ko maiatzaren 2an emandako Aginduari buruzko informazioa ematea. Haren bidez, Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautu abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako deialdia egiten zen 2013. urterako.

• **Lide Amilibia** andreak dioenez, Agindua 2013ko maiatzaren 3an argitaratu zen EHAA-n, eta hilabeteko epea ematen zuen eskaerak aurkezteko (eskaera-kopuruaren berri ematen da beheragoko taula horretan). Aurten, diru-laguntzen 2 lineari baizik ez zaie eutsi; eta diru-hornidurak ere jaitsi egin dira, %30era jaitsi ere, 2012koen aldean.

DIRU-LAGUNTZEN LINEA	AURREKONTU-KREDITUA	2013AN JASOTAKO ESKAERA-KOPURUA
1.- PERTSONEKIN, FAMILIEKIN, TALDEEKIN ETA KOMUNITATEKIN GAUZATU BEHAR DIREN ESKU-HARTZE SOZIALEKO JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZAK	4.438.280 €	495 eskaera (524 eskaera 2012an)
2.- ESKU-HARTZE SOZIALEAN EKINTZA BOLUNTARIOA ETA PARTAIDETZA ASOZIATIBOA INDARTZEKO JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZAK	644.000 €	184 eskaera (183 eskaera 2012an)

Uztailaren 1ean, ia eskaera guztiak gordeak zeuden, eta uztailan eta abuztuan haiek baloratzeko lanari ekingo zaio. Irailerako Aginduari buruzko Ebazpena egina egotea, horixe da aurreikuspena.

2014. urterako aurreikusita dago aurreiazko tramitazio bat egitea, hilabete batzuk lehenago ebazpen egin dadin (deialdi honetan, gobernu-aldaketa izan dela tarteko, ez dugu horretarako aukerarik izan), eskaera egin duten elkarten aurreikuspenak erraztea helburu hartuta. Horiek horrela, bada, Dekretuak urtarilean argitaratua behar luke, edo urte honen amaiera aldera, ahal balitz.

Hiesaren aurkako Arabako Batzordea kexu da deialdia eta ebazpena atzeratu izanagatik, baina batez ere “*garaiotan diru-iturriak horrenbeste murriztu izanagatik*”.

4. puntua.- EAEko Gizarte Zerbitzuen Txostena (2012ko III. txostena) aurkeztea.

A) Txostena aurkeztea

• **Juan M^a Aburto** jaunak gogorarazi digunez, txostena SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak egin ohi du, eta hala, SIISeko zuzendari eta txostenaren egilekide **Joseba Zalakain** jaunak hartu du hitza.

• **Joseba Zalakain** jaunak txostenaren egitura (2 *eranskin* eta *txostena* bera) azaltzeari ekin dio, eta horretan, helburu, metodologia eta datu-iturrien berri emateaz batera, lortutako emaitzen eta ateratako ondorioen berri ere eman du, “*guztiz nabarmenak eta eztabaidaeezinak diren joera nagusiak*” azpimarratuz (geldialdia 2009. urtearekiko; gertueneko zerbitzuetan ez, baizik eta diru-prestazioetan gero eta oinarrituago dagoen sistema bat; lurraldeen arteko desberdintasunak, profesionalen ezkortasuna...). Datuak 2010ekoak direnez, abuztua baino lehen eskura izango ditugun 2011. urtekoen zain egotea komeni da, aipaturiko joera horiek aldatzen diren edo geldialdiak bere horretan jarraitzen duen ikusteko.

Bileran parte hartzen ari direnei galderak, balorazioak, analisiak eta abar egiteko aukera eman zaie. Bien bitartean, Zalakain jaunak eta Aburto jaunak galderei erantzuten diete.

- FEDERPEN elkartearen ordezkariak adierazi duenez, Gizarte Zerbitzuei buruzko txosteneko ondorioetan garbi ikusten da zenbateraino eskastu den etxeko laguntza-zerbitzua, bai eta bizitegietakoa ere. *“Bide batez, etxeko laguntza-zerbitzuaren kostua orduko 24,30 €-koa da; garestiegia, gure ustez”*. *“Beste eredu baterantz goazela”*, horixe dakar, bere ustez, etxeko laguntza-zerbitzua murrizteak. Jardunik gehienak diru-laguntzak ematean oinarritzen direla ere kritikatu eta, hori dela-eta, kritika asko izan dituen Andaluziako ereduari jarraitzen zaiola salatu du.

Amaitzeko, *“komunitatean eta pertsonetan ardaztutako arreta-zerbitzuak”* (txosteneko 44. orrialdea) hartu ditu aipagai, eta alde horretatik, haxe proposatu du: 12/2008 Legearen espiritua praktikan jar dadila, banan-banako arreta-zerbitzuetan eta etxeko laguntza-zerbitzuetan oinarrituta pertsonengandik gertueneko ereduak sor daitezen. Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea mantso ari da garatzen, eta horren ondorioz, ez da modurik egon katalogoko zerbitzuak, hala nola etxeko laguntza-zerbitzuak, behar bezala martxan jartzeko.

“Hona hemen gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren oinarritzko erronketako bat: gizarte-zerbitzuak berak eta lehen mailako arreta berriz ere deskubritzea, eta arreta pertsona eta komunitatea oinarri izango dituen eredu berri bat eraikitzea. Hala, bada, haxe dugu, nire ustez, zerbitzuen zorroari buruz gogoeta egiten hasteko unerik aproposena”.

B) Txostengileentzako gomendioak

- **Gizarte Politiketako sailburuaren** proposamenez, 8 kide izango dituen Batzorde bat sortuko da *ad hoc*, txostena oinarri hartuta zenbait gomendio egin ditzan. Batzordeak irailean ekingo dio lanari, gomendioak prest izan ditzan Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak bere hurrengo bilera (abenduan, aurreikuspenak betetzen badira) egin baino lehen.

Osoko bilkurak adostu du Batzorde Tekniko (paritario) bat sortzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko 8 kidek osatua, EAEko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruz aurkeztutako III. Txostena abiapuntutzat hartuta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hobetzeko Gomendioak egin ditzan.

6. puntua.- Galde-eskeak.

- ELA sindikatuak eskatu du zerga-sistema (gurean presio fiskala EBko batez bestekoaren azpitik baitago) ere kontuan har dadila; izan ere, azkenaldian krisiaz luze jardun badugu ere, gurean aplikatzen ari diren zerga-politikek zuzen-zuzenean eragiten diete zerga-bilketei, eta horrek gastu soziala baldintzatzen du.

- Azkenik, dibertsitate funtzionalari dagokionez, eta Desgaitasunari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen Errege Dekretu Legegilea egiteko proiektua dela eta, Mendekotasunaren Lurralde Organoaren Batzorde Delegatuan atzo bertan landutakoari buruzko informazioa eman dute hartan Eusko Jaurlaritzarekin batera ari diren foru aldundietako ordezkariak.

Testu bategina dela eta, beraz, Hirugarren Sektoreari alegazioak egiteko aukerarik ez zaiela eman, horixe argudiatu du Gobernu zentralak. Gobernuaren iritziz, izan ere, testuak ez dakar batere aldaketarik, aldez aurretik idatzitako testuak batzen eta ordenatzen ari dira, ez besterik, testu bategina argiagoa izan dadin. EAEko ordezkariak zenbait ñabardura egin zituzten atzo, eta sailburuak nahiz foru-diputatuek bihar bertan azalduko dituzte, testuan aldaketak sar ditzaten saiatzeko.

Dena dela, behin eta berriz nabarmendu denez, EAEk eskumen eskusiboa du gizarte-laguntzarekin lotutako alorrean (Autonomia Estatutuko 10.12 artikularekin bat etorritz), eta



horregatik, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea eta haren arautegi-garapena -gure Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilu honek ardatz hartzen duen markoa- izango da gure erreferentzia nagusia, haren bitartez arautuko baitira gizarte-zerbitzuak, baita desgaitasunaren alorrekoak ere (hala, adibidez, gorago aipatutako *Desgaitasunen bat duten Pertsonentzako Bizitegiei eta Eguneko Zentroei buruzko Dekretua*).

Eta eskari edo galdera gehiagorik ez dagoenez, 2013ko uztailaren 3ko 13:15ean amaitutzat eman da bilkura.

IDAZKARIA

O.E.
PRESIDENTEA

**1. ERANSKINA****GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKO LEGEAREN GARAPENARI BURUZKO
TXOSTENA**

Jaurларitzara iritsi eta Etxebizitza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila hartu genuenean, bagenekien zenbait erronkari aurre egin beharko geniola, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea garatzeko zenbait Dekretu onartu beharko genituela: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzuen Zorroari eta Prestazioei buruzko Dekretua eta Plan Estrategikoa, batik bat, Gizarte Zerbitzuen Mapa, Kontzertazioari buruzko Dekretua eta Ordainketa Partekatuari buruzko Dekretua ere tartean zirela.

Gizarte Zerbitzuen Legea 2008an, loraldi ekonomiko bete-betean, onartu zen, legebiltzarkide askok babestuta onartu ere, baina ez zen Memoria Ekonomikorik egin, Legea garatzeak zer kostu izango zuen jakiteko.

Tartean izan diren arrazoiak aztertzen hasiko ez banaiz ere, kontua da Legearen atal nagusiak ez direla garatu. Gorago aipatutako Dekretuetako bakar bat ere ez da onartu. Orain arte egindako lan eskerga ez du inork zalantzan jarriko, ez eta Legea garatu nahi izana ere. Edonola ere, hainbat arrazoi direla tarteko, kontua da Legea ez dela garatu.

Guk Legearen garapenari buruzko zenbait proposamen egin dizkiegu Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoko erakundeei. Erakunde arteko Organoarekin bildu ondoren, egutegi bat aurkeztu dugu, Kontseilu honi ere aurkeztu nahi dioguna.

Joan den maiatzeko dokumentu batean azaldutako planteamenduaren berri emateko, hona hemen, labur-labur, dekalogo moduko bat:

1. Zerbitzuen eta Prestazioen Zorroa onartzeko betebeharrak legala eta politikoa du Eusko Jaurlaritzak.
2. Legeak eta, batez ere, Katalogoak ezarritako langa jaisterik ez du izango Dekretuak.
3. Gure ustez, beharrezkoa da Zerbitzuen eta Prestazioen Dekretuaren azken bertsioa berrikustea eta sinplifikatzea.
4. Gizarte Zerbitzuek gurean duten arkitektura zorrotz errespetatu behar du Zorroak.
5. Ezinbestekoa da Zerbitzuen eta Prestazioen Zorroak gaur egun zer kostu duen ondo kalkulatzeko, eta horretan, 2013. urteko datuak erabiltzea.
6. Mapa egiteko eta Legea erabat noiz betearaziko den (2016ko abenduan) jakiteko, beharrezkoa da erakunde bakoitzaren eskumenak errespetatzea, adierazitako eskaera (vs eskaera potentziala) oinarri hartuta, eta biztanleriaren hazkundera eta, beharrezkoa balitz, Legeak aipatzen dituen adierazle sintetikoak kontuan hartuz, proiektzio bat egitea.
7. Ordainketa Partekatuari buruzko Dekretu bat egitea, indarrean diren xedapenak kontuan hartuz eta Erkidego osorako minimoak ezarritak.
8. Legeak ezarritako arreta-eredua garatzea, eta horretan, ikuspuntu komunitarioa nabarmentzea.

9. Kontzertazioari dagokionez, Dekretuaren azken zirriborroan adierazitako ildoei eustea, Bruselan hari buruz hartu beharreko erabakiak iritsi ondoren.
10. Azkenik, Legearen unibertsalizazioari dagokionez, Jaurlaritzak ez du atzerapenik proposatuko, ez eta Legean bertan aipatzen ez den murrizketarik ere. Dena dela, oso ondo dakigu gaur egun zer muga ditugun, eta beraz, zuhurtasunez jokatzeko eskatzen diegu denei, gure Herria eraikitzen jarraitzeko eta gizarte-kohesioan aurrera egiteko hain beharrezko zaigun baliabidea hauts ez dadin.

Horiek guztiak gogoan hartuta, bada, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa bildurik, hauxe proposatu dugu:

Azken Zirriborroa sinplifikatze aldera, Zorroari buruzko Dekretuaren beste zirriborro bat prestatu dugu. 64 orrialde ditu, eta garrantzizkotzat jotzen genituen zenbait alegazio (Udalei buruzko fitxetan, batik bat) gehitu dizkiogu. Horiei dagokienez, balorazio ekonomiko bat egitea beharrezkoa iruditu zaigu: "Zenbat diru du gaur egun gure sistemak?".

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organoak egingo du Memoria, eta, erakunde guztiekin batera hura aztertu ostean, datorren urrian prest egon beharko luke.

Era berean, Plan Estrategikoa berrikusteko beharra ere badago, Mapa hartan jaso eta 2016. urtera bitartean indarrean egon dadin. Mapan, Zentroetako arreta-tarteak eta biztanleria-mailak hartuko dira hizpide, baina hari buruzko Programazioa foru aldundiek eta udalek egingo dute.

Hala, bada, Zorroari buruzko Dekretua, Plan Estrategikoa eta Mapa datorren azarorako bukatuta egongo dira; hala uste dugu, behintzat.

Ordainketa Partekatuari buruzko Dekretu bat ere egin dugu. Hura hasteko agindua irailean eman nahi dugu, alegazioak egiteko epealdia eta oporraldia batera gerta ez daitezen. Kontzertazioari buruzko Dekretuari dagokionez, gure ikuspuntu politikoa eman ondoren, Hirugarren Sektoreko erakundeekin harremanetan jarri gara, elkarrekin batera Legea garatzeko.

Gainerako arautegiei dagokienez, berriz, hona hemen eskura dugun informazioa:

- *Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistema arautzen duen dekretua*
 - Hasteko agindua emanda, 2010eko irailaren 20an
 - Zerbitzuen Zuzendaritzak Txosten Juridikoa noiz emango zain gaude.
 - 2013ko bigarren seihilekoan onartua
- *Gizarte-intereseko deklarazioa arautzen duen Dekretua*
 - 2013ko apirilaren 22an Aholku Batzorde Juridikora bidalia
 - 2013ko bigarren seihilekoan onartua
- *ELZri buruzko Dekretua*
 - Hasteko agindua emanda, 2012ko abenduaren 3an
 - Geldiarazi egin da haren tramitazioa, Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuak baldintzatuko baitu haren edukia.

- *Arreta Goiztiarra emateko Zerbitzuari buruzko Dekretua*
 - Osasun Sailak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak batera eman dute hasteko agindua.
 - Zerbitzuen Zuzendaritzako zerbitzu juridikoek beren onarpena noiz emango zain gaude
 - Onarpena jaso ondoren, Hasteko Agindua beste 2 sailburuei igorriko zaie, sina dezaten.
- *Bazterketa Baloratzeko Tresnari buruzko Dekretua*
 - Gobernu Batzordeak uztailaren 16an onartua
- *Fitxa sozialari eta diagnostikoari buruzko Dekretua*
 - Argitaratuta
 - 353/2013 DEKRETUA, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa
- *Desgaitasunen bat duten Pertsonentzako Bizitegi eta Eguneko Zentroei buruzko Dekretua.*
 - Dekretua onartu aurreko dokumentua aztertzen ari gara